



DÍAZ NOCI, Javier

Euskal Herriko Unibertsitatea
Sarriena z.g.
48940 Leioa
pdpdinoj@lg.ehu.es
www.ehu.es/diaz-noci

BIBLID [1137-1951 (2004), 10; 25-39]

Sarrera eguna: 2004.09.13
Onarpen eguna: 2004.12.20

Autore-eskubideen eta kazetari- lanen inguruko hainbat arazo: kopia pribatua, ordainsariak, lege-salbuespenak eta prentsa- laburpenak

(Copyright, royalties and journalism: private copy, compensation,
legal exceptions and press clipping)

autore-eskubideen aplikazioa zaila izan da beti, eta egunkari-aldizkarietan agerturiko informazioen kasuan are gehiago, lege-salbuespenak izan daitezkeelako. Teknologia berrien etorrerak gauzak konplexuago egin ditu. Autoreek hirugarren pertsonak beren obrak erreproduzitzeagatik jaso dezaketen ordainsaria zein izan daitekeen eta zer kontzeptutan sar daitekeen aztertzen dugu hemen, bai eta prentsa-laburpenen ekinbidea nola izan daitekeen zilegia ere.

Giltza hitzak: Autore-eskubideak. Jabetza intelektuala. Kopia pribatua. Prentsa-laburpenak.

La aplicación de los derechos de autor ha sido siempre difícil, y en el caso de la información que aparece en las publicaciones periódicas aún más, ya que pueden constituir excepciones legales. El advenimiento de las nuevas tecnologías ha vuelto las cosas más complejas. Cuál puede ser la remuneración de los autores por la reproducción de sus obras por parte de terceras personas y en qué concepto se englobaría es lo que aquí examinamos, y también cómo conseguir que la actividad del resumen de prensa se ajuste a la legalidad.

Palabras clave: Derechos de autor. Propiedad intelectual. Copia privada. Resumen de prensa.

L'application des droits d'auteur a toujours été difficile, et encore plus dans le cas de l'information dans les publications périodiques, car ils peuvent être exceptions légales. L'avènement des nouvelles technologies a rendu les choses plus complexes. Nous examinons ici quelle peut être la rémunération que les auteurs peuvent percevoir pour la reproduction de leurs œuvres de la part de tierces personnes et dans quel concept ils seraient englobés. Nous examinons également comment faire pour obtenir que l'activité du résumé de presse soit légale.

Mots clés: Droits d'auteur. Propriété intellectuelle. Copie privée. Résumé de presse.



1. Sarrera. 2. Hitzez hitzeko erreprodukzioa, aipu-eskubidea, prentsa-laburpenak. 3. Prentsa-laburpena lege-salbuespen gisa: 3.1. Originaltasuna, funtsa edo substantzialitatea eta aipuaren luzera: lehia desleiala. 3.2. Hiperesteka: lege-arazoak. 4. Kopia pribatuko konpentsazio-ordainsaria. 5. Ondorioak.

1. Sarrera

Jabetza intelektualaren eta autore-eskubideen kontzeptua bi legeren eskutik agertu zen: bata, Ana erreginaren araudia, XVIII. mende hasierako Ingalaterran, copyright delakoari ("kopia-eskubidea", literalki) hasiera eman ziona, gaur egun ere Common law sistema duten lurraldeetan bizirik dirauen kontzeptua; eta, bestea, 1789ko Iraultza ondorengo Frantzia indarrean jarri ziren jabetza intelektualari buruzko legeak. Teknologia berriak sortu ahala, betiere oso abstraktuak izan diren arauen aplikazioa gero eta zailagoa izan da. Maiz, ekonomia-ustiapena eskuratu dutenen eta publikoak informazioa eta arte-sorkuntza eskuratzeko dituen eskubideen arteko lehia gerta daiteke, eta gertatu ere gertatzen da.

Internetek, eta batez ere World Wide Web hipertestu-sistemak, 1990eko hamarkadan sortu zenez geroztik, aldaketa sakonak eragin ditu informazio-munduan. Ordenagailu eta telefono-konexioa duen edonork informazio-masa itzelak eskura ditzake munduko edozein lekutatik. Informazio horiek elkarrekin lotuta daude, eta multimedia ere badira; alegia, testua, irudiak, soinua, animazioak, datu-baseak edo ordenagailu-programak produktu integratu batean eskain daitezke. Lan-mota horiei eta beraien sortzaileei ematen zaien babes juridikoan ere aldaketa handiak gertatzen ari dira. Kazetaritza, hasieratik oso eraginkorra ziberespazioan, ez dago arazo horietatik at. Batetik, duela ez asko zabalkunde mugatuko obra zena (tokian tokikoa, erregionala), orain, Interneten jartzen edo "zintzilikatzen" den unetik, transnazional bihurtzen delako, eta, horregatik, araua urratzen denean, arazo juridikoak biderkatu egiten dira: substantzia- eta prozesu-legeak zeintzuk diren eta lurralde-eskuduntza zehaztea, auzia bideratzea eta onik bukatzeko aukerak zehaztea. Bestetik, lan egiteko modua bera ere aldatu delako: ordenagailuek informazio oro digital bihurtzen dute; beraz, aurretiko obra, legalki edo ilegalki, merke kopiatu eta erabiltzea errazten dute, eta, legearen aurka egiten bada, hori frogatzea zaildu. Hirugarrenik, lehen oso zabalkunde murriztekoak ziren gauzak egitea (konfidentzial bat edo prentsa-laburpen bat, adibidez) erraztu duelako.

Gaia, beraz, garrantzitsua eta ikuspuntu juridikotik kontuan hartzeko modukoa da. Ezin da alde batera utzi, 2002ko urriaren 20an Espainiako

prentsa-talde sendoenek merkataritza-baltzu bat sortzea erabaki zutelako, "jabetza intelektualeko beraien eskubideen defentsa komuna egiteko, argitaratzaileen baimenik gabe gero eta gehiago egiten diren prentsa-laburpenen ekintzari aurre egiteko". Baltzu horri Gedeprensa deitu zioten Prisa, Vocento, Grupo Godó, Recoletos eta Unedisa enpresek; El País, El Correo eta El Diario Vasco, ABC, La Vanguardia, Marca edo El Mundo bezalako egunkarien argitaratzaileek alegia. Ekintza horrek kritika ugari jaso zituen, batez ere hirugarren pertsonentzako informazio-laburpenak egiten dituzten enpresen aldetik. Gedeprensa sortu zuten taldeei informazioa monopolizatzen saiatzen ari zirela leporatzen zieten. Hasiera batean Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Gedeprensa sortzeko baimena eman bazuen ere, AESIP delakoak, hau da, informazio-laburpenak egiten dituzten enpresak –txiki eta ertainak, gehienak– biltzen dituen elkarteak, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren aurrera eraman zuen 2003an. 2004ko maiatzaren 10ean, Auzitegiak erabaki zuen Gedeprensa sortzeko baimenik ez ematea. Auzitegi Gorenaren aurrean helegitea aurkezterik badago, hala ere.

Auzia ez dago, ordea, erabat konpondurik, autore-eskubideen inguruan argi-itzal ugari daudelako: esate baterako, autoreei dagozkien ordainsariak, etekinen banaketa, nola bateratu batzuen eta besteen eskubideak, bai eta publikoarenak ere. Interneten, adibidez, Periodista Digital sortu zen, beste komunikabide batzuetatik harturiko informazio osoez egindako komunikabide bat. 2003an El Mundo eta El País egunkarien enpresek leporatu zioten legez kanpoko praktikak egiten ari zela, eta bertan behera uztea agindu ere bai. Kazetariaren artean denetarik iritziak azalarazi zituen. Prentsa-laburpen baten suposamendu berdina al da hau?

Press clipping delako negozioak diru-kopuru galanta mugiarazten du Espainian. Iturri ezberdinen arabera, 25-180 milioi euro urtero. Informazioak digitalizatu eta Interneten bidez azkar eta zabal banatu edo komunikatzeko aukerak nabarmen gehitu du orain arte nahitaez aleen erreprodukzioari eta banaketari loturiko ekimen baten garrantzia eta bolumena.

Faktore batzuk kontuan hartu behar ditugu. Lehenik eta behin, 1978ko Konstituzioan jasotzen diren oinarrizko eskubideak; 20. artikuluko informazio-askatasuna eta sarbidea, adibidez. Hala ere, zer esanik ez, zehaztu egin beharko genuke nola gauzatzen den eskubide hori eta zer-nolako mugak dituen. Bigarrenik, informazio hori lehen aldiz argitaratzen duten enpresen eskubideak, eta nola saiatzen diren material horrekin prentsa-laburpenak egiten dituzten beste enpresa batzuek haien negozioa kaltetu ez dezaten. Aintzat har dezagun orain teknologia digitalek ahalbideratzen dutela bi produktuak ia aldi berean eskaintzea bezeroei. Oso kontzeptu juridiko errotuak, hala nola *lucrum cesans et damnus emergens*, irabaz-

teari utzi eta kaltea sortzea, kontuan hartzeko modukoak dira oso. Hirugarrenik —eta hau gutxiago agertzen den argudio bat dugu, baina, gure ustez, garrantzitsu askoa—, autoreen, hau da, kazetarien eskubideak daude, lehengai diren albisteak idatzi eta gero enpresa batzuei lagatzen baitizkiete (egunkariak, irratiak, telebistak, komunikabide digitalak) hauek argitara ditzaten, lan-kontratu edo lotura zibil baten bidez. Alderdi hau ere garrantzitsua da. Albiste horiek, autore diren kazetarien baimenaz —eta horrela baino ez— berriz ere laga dakizkieke, baldintza batzuen pean, hirugarren pertsona batzuei. Lan intelektualaren ekoizleak usu parterik kaltetuena izatearen zioak, jatorriz autore-eskubideen jabeak izan arren —eskubide batzuk, bide batez esanda, beti haien esparru juridikoan daude—, lanbideak autore izateko kontzientzia eskasean eta korporatibismo ahulean dautza. Kazetaria, autorea alegia, gehienetan prozesu ekonomiko honetan etekin gutxien lortzen duena da, lehengai ezinbestekoaren sortzailea izan arren. Horregatik, gehienetan kazetariak ez dira egoten, paradoxikoki, haien obren inguruko negozioaziotan.

Aldez aurretik, haatik, azal dezagun gure argudio nagusia: gurea bezain autoreen aldeko sistema juridikoan, kazetarien eskubideak negoziazioaren fase guztietan hartu behar dira kontuan, informazio-laburpenengatik hirugarren pertsona juridikoek zenbat ordaindu behar duten —eta nortzuei, eta nola— eztabaidatu baino lehena. Gogoratu beharra dago gure arlo juridiko hau autore-eskubideena edo jabetza intelektualarena dela, eta doktrinak ez duela azken izendapen hau aho batez onena kontsideratzen —Espainiako legea, Europako inguruko lurraldeetako gehienak bezalaxe, Jabetza Intelektualarena bada ere—, haren ezaugarri batzuk ez dituzenez gero, benetako jabetza ez delakoan. Hasteko, autore-eskubideak —ekonomikoak, egia esan, inoiz ez moralak— epe baterako baino ezin dira besterendu, ez betiko. Are gehiago, autorea hiltzen denetik 70 urte igarotakoan, bere obra esparru publikora doa, hain zuzen ere edozein hiritarrek duen kulturarako eskubidea babesteko, autoreak eta bere ondorengoek ekimen intelektualaren gaineko eskubideei esker lan-fruituak jasotzeko aukera ukitu gabe.

Argi eta garbi, prentsa-laburpenetan erreproduzitzen diren albisteen kaduzitatearen karia ez da hain epe luzea aplikatuko; beraz, ez da komeni esparru publikokoa izateagatik besteen informazioak aipatzeko eskubidea asimilatzea, Bernako Itunak dioenez “eguneko informazioak” direlako. Egia da kazetaritza-informazioak jabetza intelektualari buruzko legedian tratamendu berezia jasotzen duela, baina ez da inolaz ere ondare jabegabeko bat, iristen den lehenak eskuratu edo erabilera gozatu dezakeena.

Artikulu honetan, aipaturiko erabakiaren haritik eta prentsa-laburpenen inguruan plazaratu diren arazoak aitzakiatzat hartuta, kazetarien lan intelektualak autore-eskubideen edo jabetza intelektualaren ikuspuntutik dituen berezitasun batzuk aztertuko ditugu. Hemen ikerketa handiago batean lorturiko emaitza batzuk aurreratu nahi ditugu. Espainiako komunikabideen gaineko Interneten eragina izenburupean Santiagoko, Malagako, Nafarroako eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari batzuk egiten ari garen ikerketan, Sareak Espainiako kazetaritzan dituen alderdi batzuk, juri-dikoak barne, aztertzen dira. Zientzia eta Teknologiarren Ministerioak I+D egitasmoei emandako laguntza bat jaso du, BSO2002-04206-C04-03 kodea duena.

2. Hitzez hitzeko erreprodukzioa, aipu-eskubidea, prentsa-laburpenak

Obra, jatorriz, autorearena da, eta hala izanik, egile-jabeak suposamendu jakin batzuetan baino ez du haren erreprodukzioa edo komunikazio publikorako baimenik ematen. Hala ere, egon badaude lege-salbuespen batzuk, zenbait kasutan autorearen edo bere eskubideak dituztenen baimenik gabe lanaren erreprodukzioa ahalbidetzen dutenak. Kasu horien ikerketa garrantzitsua da oso, batez ere badaudelako enpresa-ekimen batzuk besteen obra erreproduzitzean oinarritzen direnak, hala nola prentsa-laburpenak edo press clippings egiten dituztenak, azkar egin ere, gaurkotasuneko gaiak izaten direlako.

Beste alde batetik, 1978ko Espainiako Konstituzioko 20. artikuluan jasotzen diren adierazpen eta informazio-askatasuna eta eskubideak gauza daitezten, nolabaiteko oreka bilatu behar da. Hain zuzen ere, hori lortzeko eta informazioaren trafikoa erraz eta arin egin ahal izan dadin, Jabetza Intelektualari buruzko Legeak (1/1996) hainbat salbuespen jasotzen ditu, ustiapen-eskubide eskusiboen muga moduan ulertu behar direnak¹. Aipatutako lege-testuan, I. Liburuaren III. Izenburuaren II. Atalean ageri dira salbuespen horiek —inguruko lurraldeetan ere antzekoak izaten dira—, 31-40 bis artikuluetan alegia. Hala eta guztiz ere, gure testu honetan erabiliko ditugun kontzeptu dezente erabat zehaztu gabe daude ikuspuntu juridiko batetik; demagun, zer den aldizkari bat, edo prentsa-laburpen bat.

Salbuespenik garrantzitsuena, eta arazo juridiko gehien sorrarazten duena, aipua da. Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 32. artikuluan daukagu. Lehenik eta behin, suposamendu hori gerta dadin, norberaren lanean besteren

1. BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo (koord.). Manual de propiedad intelectual, Valentzia: Tirant lo Blanch, 2001; 100. or.

baten zatiak, testukoak edo beste mota batekoak, sartu behar dira². Doktrinak, baina, uste du badagoela, norberaren obran sartu beharreko beste baten obra hori zatikatzeko gaitza denean (argazki bat edo koadro bat, adibidez), “obra isolatuak” erabiltzerik. Germán BERCOVITZek aztertzen ari garen ekonomia sektoretik gertu egon daitekeen adibide bat azaldu du: telebistako iragarki bat aipatzea publizitateari buruzko ikastaro batean. “Zatiak izateko exigentziak –ituztzen dugu gaztelaniatik– zailtzen du aipua, ziurrenik modu ezegokian”³. Baina, BERCOVITZek berak azaltzen duenez, “aipatutakoaren kopurua oso irizpide garrantzitsua da” eta, haatik, “zenbait lan” aipa daitezke, ez “lan asko”. Beste modu batean esanda: gauza argia dirudi norberaren obrak ez lukeela soilki edo batez ere beste batzuen obrez osatua izan beharko, eta are gutxiago beste batzuen obra isolatuez. Azken hauei ez litzaieke aplikatuko beste edozein obra-motaren aipuaren gaineko obligazioa, Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 32. artikuluan jasotzen dena, hau da, irakaskuntza edota ikerkuntza-asmorako izatea, “eta ikerketa horren xedeak justifikatzen duen heinean baino ez”. Gauzak horrela, akademiao edo irakaskuntza-munduan pentsatuko genuke, baina, beharbada, *sensu lato*, kazetari-ikerkuntzan ere pentsa genezake. Edozein kasutan, oso esanguratsua da Legeak aipua behar-beharrezkora mugatuko dela azpimarratzea, eta, printzipioz, aipatutako lanaren erreproduktzio osoan ez pentsatzea. Beste alde batetik, lan bakoitzaren natura kontuan hartu behar dela uste dugu, eta prentsa-laburpenak, arazo eta oztopo legal handirik gabe ehun bat urtetan egin izan direnak, kasu berezi samarra izan daitezke, erabiltzen dituzten obrak berezi samarrak direlako lege-ikuspuntutik. Halaxe uste du Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, Gedeprensa sortzea ukatzen duen espedientearen erabakian, 2004ko maiatzean. Berriz ere itzuliko dugu:

“Ezaugarri hauek dituen akordio horizontal baten benetako aplikazioak [...] alderdi interesatuek izendatu duten press clipping jardueran aldaketa garrantzitsua egin zezakeen [...] horniketarako alde aurretiko baimenagatik, salneurri komun baten ezarpenagatik, eta komunikabideek argitaratutako materialen sarbide bakarraren ezarpenarengatik. [...] eta, gainera, auditoria-sistema bat press clipping egiten duten enpresen kontabilitatea eta sistema informatikoak aztertu ahal izateko. Horrek guztiak zerbitzu-mota hauen ekoizpena eta banaketa batu, mugatu eta gutxitu egin zezakeen, eta, aldi berean, horniketa-iturburuen bilketa itzela bezalako efektuak sor zitzakeen”.

Kazetari-lanak, Espainiako legeak (33. artikuluan) “gaurkotasuneko gaiei buruzko lanak” deitzen duenak, zenbait berezitasun ditu. Lehenik eta behin, beste komunikabideek osorik erreproduzi ditzakete albisteak –beste obra-mota gehienak, aldiz, zatika erreproduzi daitezke–, betiere autorea eta jatorria aipatzen direla. Horrela, gaurkotasuneko informazioaren zirkulazio askea bermatzen da, eta hori ez doa kazetariaren kaltetan, bere egiletza aitortzen delako –nolabait, publizitatea ematen zaio, eta bere lanaren kalitatea ere aitortzen zaio–, eta “itundutako edo, akordiorik ez dagoenean, ekitateko ordainsaria jasotzeko” eskubidea zeharo gordezten da (Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 33. art.).

Erreproduzitutako lanaren asmoa ere kontuan hartu behar da: ezin da erreproduzitu alde aurretik argitaratutako obra bat autoreari kontsulta egin gabe, beste gauza batzuen artean ekintza hori bai eskubide moralen bai ustiapen-eskubideen aurka doalako. Europako jurisprudentzia zenbaitek argi ikusi du kazetariaren eskubide moralen eta etekin ekonomikoaren arteko erlazioa. Gogora ditzagun bi kasu:

- Putti kasua: Erromako Preturak 1988ko irailean erabaki zuen La Repubblica egunkarian lan egiten zuen Laura Putti kazetariak sinatutako testu baten zati bat ezin zela erabili, testuingurutik at eta dirua irabazteko asmo garbiz, ur mineralari buruzko iragarki batean, Puttiren autore-eskubideen aurka zihoalako, nahiz eta egunkaria argitaratzen duen enpresaren presidenteordeak berak baimena eman izan. Puttik bakarrik eman zezakeen baimena. Erromatar epaitegiaren hitzak ezin esanguratsukoak ditugu: “Puttiren lanbide-duintasunak sufritu egiten du, kazetariaren artikulua behar bezala argitaratu ez delako [...] eskubide moralean kalte sendaezinak eragiten ditu”⁴.
- Saget kasua: 2003an, France Press agentziak onartu zuen Jean Marie Le Pen eskuin erradikaleko politikariaren alaba den Marine Le Pen-en argazki bat, agentziarako lan egiten duen Jöel Saget argazkilariak egindakoa, lagatzea, 2004ko hauteskunde-erako kanpainian Force Neuve alderdiak (Marine Le Pen hautagaia zen) erabil zezan. Argazkilariak protesta egin zuen, berak bakarrik erabaki zezakeelako zein izango zen bere obraren helburua. France Press-en hiru eguneko lanuztea egin zen,

2. 2003ko abenduan, Madrilgo Instantsiako 21. Epaitegiak El Mundo egunkariaren argitaratzailearen aldeko epaia eman zuen. Egunkariak, 2002ko azaroran argitaratu zuen diskografikoei buruzko erreportaje batean, kanta-zati batzuk sartu zituen. Epaitegiaren ustez, horiek aipuak ziren.

3. Op. cit., 102. or.

4. Putti versus Quaker Chiari & Forti, Pretura Roma, 1988ko irailaren 19a. Il Diritto dell’Informazione e dell’Informatica, 1989, vol. I, gennaio-aprile; 179-181 orr.

eta azkenik agentziak aitortu zuen bere langilearen eskubidea ona zela, eta argazkilariak idatziz eman behar zuela baimena bere lana komertzializatzeko arazo moralak sor zitzakeen egoeretan⁵.

Berriz ere, kasu hauek gogorarazten digute autoreak beti hartu behar dela kontuan, berau baita bere lana zertarako erabil daitekeen erabakitzen duen bakarra.

3. Prentsa-laburpena lege-salbuespen gisa

Lan bat gaurkotasuneko informaziotzat hartzeak baimentzen al du prentsa-albiste eta artikulua kopia pribatuko ordainsaritik at uztea, informaziorako eskubidearen babespean, autoreen eta publikoaren interesak, autoreak bere ahalegin intelektualaren truke etekinak lortzeko eta publikoak informazioa jasotzeko dituzten eskubideak orekatzeko asmoz edo?

Aipatutako arauen testuak (Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 32. art.) halaxe dio: “Erreseina edo prentsa-laburpen gisa azaltzen diren aldizkako bildumak aipuak bezalakoak izango dira”⁶.

Badirudi lege-araua ez dela pentsatu prentsa-laburpenetarako, baizik eta aldizkari eta egunkarietan agertzen diren erreseinetarako, hau da, beste komunikabide batzuetan alde aurretik argitaratutako informazioen zatiez aldizkari horren sail moduan osatutako laburpen horietarako. Produktu horiek berezko informazioak baino askoz esparru gutxiago betetzen dute egunkari edo aldizkarietan eta, halako quid pro quo printzipio bat errespetatzen dute –Lehiaren Defentsarako Auzitegiak dioenez–: komunikabideek elkarri aipatzea. Press clipping bat, aldiz, bestelako obra da, antologiatik gertuagoa (Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 11. art.), doktrinaren arabera aipu-eskubide eta salbuespenaren barruan ez legoikeena. Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren erabakiak, bestalde komunikabideen jarraipena egiten duten enpresen hain aldekoa, zera aitortzen du:

“‘Prentsa-laburpen’ terminoaren zehaztasun faltaren kariaz, press clipping ekimena garatu

eta indartu egiten da, oinarrizko lehengaia darabilen ustezko jabetza intelektuala alde batera zeharo utzi”⁷.

Beste gauza bat izango litzateke, jakina, prentsa-laburpena besteen lanez bakarrik osatua ez izatea, baizik eta produktu propio bat izatea besteen informazio horiek erabiliz iruzkinak egiten dituen, eta emaitza nagusia –lan intelektual berria– iruzkinak izatea, ez erreproduzitzen diren informazioak. Aipuek iruzkinek baino esparru gehiago betetzea ez litzateke oztopo izango horrelaxe hartzeko, ez eta erreproduzituriko obraren izaera, ikus-entzunezkoa, ere⁸.

Jatorrizko informazioak beti argitaratzen dituzte komunikabideek; hala ere, informazio horiek erreproduzitzen dituztenak ere komunikabidetzat har ditzakegu? Jurisprudentziak zer esan dezakeen oraindik jakin gabe, beharbada pentsa daiteke aldizka, baita egunero ere, egiten den prentsa-laburpen bat berez komunikabide bat dela. Horretarako, noski, erregistratu egin beharko zen haren izenburua, aldizkari-izaera legalki izan dezan. Jabetza Intelektualari buruzko Legeak batzuetan aipatzen du aldizkariaren berezitasun legala (adibidez, 52. artikuluan), baina inoiz ez du definitzen zer den. Aldizkariaren kontzeptua, baina, Legeko 4. artikuluan agertzen da (“zabalkunde bat, publikoaren eskuetan obraren ale batzuk jarritz egiten dena, publikoaren beharrak arrazionalki betetzen dituen haren izaera eta xedearen arabera”⁹). Badirudi Lehiaren Defentsarako Auzitegiak nahiago duela prentsa-laburpenak aldizkaritzat hartzea¹⁰. Baliteke, bestalde, galdezea aipuaren funtsa edo substantzialitatea portzentaje jakin bati dagokion –lege-bidez fotokopietarako baino markatu ez dena–, edo kontzeptu subjektiboagoaz ari garen. Era berean, badugu galdetzerik ere komunikabide baten informazioak (alegia, obra kolektibo batetik hartutakoak) erreproduzitzen direnean, funtsa obra kolektiboari edo berau osatzen duten banakako obrei dagokienentz. Azkenik, ondratuki alega daiteke funtsa besteen obrak erreproduzitzen egiten den obrari ere badagokiola, baina aldi berean besteen obrek osatzen badute prentsa-laburpen hori, obra berri horren originaltasuna hutsaren hurrengo dela dioen argudioa ere azal zitekeen.

5. La Vanguardia, 2003ko azaroaren 9koa.

6. “Las recopilaciones periódicas efectuadas en forma de reseñas o revistas de prensa tendrán la consideración de citas”.

7. “La indefinición legal del término ‘revista de prensa’ permite que se desarrolle y se consolide una actividad como la del press clipping, de espaldas completamente a la supuesta propiedad intelectual que utiliza como insumo fundamental”.

8. Ikus-entzunezko obrari buruz, ikus FUCHS, Liliána. “Una aproximación al derecho de cita en la obra audiovisual”. Rogel Vide, Carlos (koord.). In: Creaciones audiovisuales y propiedad intelectual. Madril: Reus, 2001; 201. or.

9. “Zabalkunde bat, publikoaren eskuetan obraren ale batzuk jarritz egiten dena eta beraren izaera eta xedearekin bat datozen beharrak asetzen dituen” (“Divulgación que se realice mediante la puesta a disposición del público de un número de ejemplares de la obra que satisfaga razonablemente sus necesidades estimadas de acuerdo con la naturaleza y finalidad de la misma”).

10. “Prentsa-laburpen bat haren helburuagatik komunikabidetzat har daiteke” (“Un resumen de prensa pudiera ser considerado, por su finalidad, de la misma clase que un medio de comunicación social”).

3.1. Originaltasuna, funtsa edo substantzialitatea eta aipuaren luzera: lehia desleiala

Gure Legeak aipatzen ez duen kontzeptu bat bada ere, ez legoke gaizki, doktrinak azken boladan egin duen bezala, hemen, malgutasun gehiago bilatu nahian, lege-mundu anglosaxoitik hartutako kontzeptu bat plazaratzea: Estatu Batuetako fair use edo Erresuma Batuko fair dealing delakoa. Alde batetik, Germán BERCOVITZek dioenez, “legegile espainiarrak suposamendu-zerrenda bat nahiago izan zuen, tradizio europarrari jarraiki, klausula irekietatik ihes egin eta ziurtasun juridikoa bilatzen duena”¹¹, baina Common law sistemak klausula irekiago bat aplikatzen du, lau suposamendutan oinarritua. Berriz ere Germán BERCOVITZekin batera:

- 1) Obraren xedea eta erabilera.
- 2) Obraren izaera edo natura.
- 3) Erabilitako zatiaren kopurua eta funtsa, obra osoarekin konparatuta.
- 4) Obraren balioa eta balizko merkatuaren gaineko eragina.

Fair use edo fair dealing teoria hau aplikatuz gero, zer eragin izango luke komunikabideen jarraipen-jarduerarengan? Alega liteke, lehenik eta behin, horrelako obrak mende batean zehar egin izan direla, eta eztabaida azken urteetan bakarrik sortu dela, kopia eta zabalkunde digitaleko teknologia berriek ahalbideratu dutenean negozio hau Interneten bidez azkarrago eta hobe egitea. Alega liteke, bestalde, jarduera honek gaurkotasuneko informazioaren zabalkunde lagundu eta bermatzen duela, betiere derrigorrezko egiletzaren eta jatorriaren aipamena errespetatzen dela –berez bezeroak hara jo dezake– eta komunikabideen negozioa errespetatzen dutela, ezberdina delako: haiek produktu generalista bat eskaintzen dute, eta, gero, komunikabideen jarraipena egiten duten enpresek beraien bezeroei interesatzen zaizkien albisteak aukeratzen dituzte, bezeroek ez dutelako hori egiteko denborarik izaten.

Bigarren eskakizuna, obraren izaera, berdin. Komunikabideen jarraipeneko sektore ekonomikoa aspaldi dago eratu, antolatua, eta denbora luzez aritu da alde aurretik argitaratu diren gaurkotasuneko informazioak hautatuz eta

bilduz. Ez litzateke oso justua izango errealitate hau ukatzea eta, aurkako argudioak besterik gabe kontuan hartuz, jarduera hau galaraztea. Are gutxiago fair use teoriak aintzat hartzen duen hirugarren suposamendua alegatuz gero, hau da, aipatutakoaren eta norberaren obraren arteko proportzioa neurtzearena. Aipatutakoa obra berri osoa denean, aztertzen ari garen teoria anglosaxoiak ere alboratzen duen suposamendua genuke.

Azken batean, giltzarria laugarren ezaugarrian legoke: merkatuan duen eragina. Beraz, badirudi negoziatu egin behar dela etekinak sorrazten dituen lanbide batekin jarraitu ahal izateko, autoreen eta beren eskubide ekonomikoak eskuratzen dituztenen etekinak murriztu gabe, zilegiak baitira. Hala eta guztiz ere, negoziazio horretatik usu alde batera uzten dira autoreak. Gogora dezagun Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 33. artikulua, komunikabideek beste hedabideetan argitaratutako gaurkotasun-informazioak berriz ere erreproduzitzen uzten duenak, ezartzen duela hori baimentzen dela “autoreak adostutako ordainsaria edo, itunik ez dagoenean, ekitatezko-tzat jotzen dena jasotzeko eskubidea kaltetu gabe”¹². Gure iritziz, autorearenganako eta bere eskubideenganako begirunea gure legedi osoan zehar dago, autorerik eta autore-eskubiderik gabe sorkuntza intelektualik ez legokeelako.

Germán BERCOVITZek gogoratzen duenez, fair use delakoaren inguruko teoria –dena den, Jabetza Intelektualari buruzko Legean salbuespenei buruzko atalaren espiritutik ez oso urrun– nolabait sartu da gure ordenamenduan 5/1998 Legearen bidez (martxoaren 6ko Legea, datu-baseei buruzko europar Direktiba jasotzeko), artikulua berria ekarri zuena (40. bis delakoa), II. Atala ixten duena eta zera dioena:

“Atal honetako artikulua ezin izango dira interpretatu autorearen interes zilegien aurka doazen eran, edo dagozkion obren ustiaketa arruntaren kaltetan”¹³.

Berriz ere gogoratu behar da informazio-enpresen eta komunikabideen jarraipen-enpresen artekoa, neurri handi batean, lehia-gatazka bat dela eta, haatik, AESIP eta Sofres enpresek –press clipping egiten dutenak– Gedeprensarekin zuten arazoa Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren aurrean eraman zutela, eta organo jurisdikzionalak Gedeprensaren aurka erabaki zuela, monopolio bat zelakoan.

11. “Legegile espainiarrak, tradizio juridiko europarraren barruan, klausula irekietatik ihes egin eta ziurtasun juridikoa bilatzen duena, suposamendu batzuen zerrendaren teknika aukeratu zuen” (“El legislador español optó por la técnica de una lista de supuestos [...] dentro de la tradición jurídica europea, que huye de las cláusulas abiertas y busca la seguridad jurídica”). BERCOVITZ, op. cit.; 109. or.

12. “Todo ello sin perjuicio del derecho del autor a percibir la remuneración acordada o, en defecto de acuerdo, la que se estime equitativa”.

13. “Los artículos del presente capítulo no podrán interpretarse de manera tal que permitan su aplicación de forma que causen un perjuicio injustificado a los intereses legítimos del autor o que vayan en detrimento de la explotación normal de las obras a que se refieren”.

3.2. Hiperesteka: Lege-arazoak

3.2.1. Hiperesteka aipu moduan

Arazo handi samar bat, enpresa batzuek izan dutena, zera da: informazio osora daraman esteka edo lotura bat (albiste baten izenburua, adibidez) aipuztat har daitekeenentz, eta lege aldetik horrela hartu behar denentz. Prentsa-laburpen dezente horrelaxe egiten dira –batez ere laburtzen dituzten komunikabideak ere digitalak badira–, gero weborri batean jarri edo bezeroei posta elektronikoaren bidez bidaltzen zaizkienak: kasu horietan, titular edo izenburu-zerrenda bat da, autore edo egilea eta jatorrizko komunikabidea zeintzuk diren argi eta garbi aipatuz –hau da, lege aldetik eskatzen dena aipua izateko, eta ez plagioa–, eta hiperesteka bakoitzak jatorrizko weborrira bidaltzen du, non informazioak osorik irakur daitezkeen¹⁴. Hemen ere Common law-tik hartutako kontzeptu legalak erabili beharko genituzke, berriz ere fair use delakoa, irabazi-asmoz ari ote den argitzeko, eta ustiapen-eskubidea dutenen eskubideak urratzen ari ote diren jakiteko¹⁵.

Gure aldetik, uste dugu hiperesteka bat aipuztat har daitekeela –beste baten obrari egindako erreferentzia, alegia–, artikulu honetan, ikerkuntza-asmoz, beste egile batzuen lanak aipatzen diren bezalaxe, betiere autorea eta jatorria zeintzuk diren aipatuz, kasu honetan orrialde-oinean. Horrela, lege-agindua errespetatu ez ezik, erreferentzia egia den jakin nahi edo aipuaren informazioa osatzeko interesa duen edozein pertsonak iturburura ere jo dezake. Mundu fisikoan, analogikoan, erreferentzia batean aipatzen den artikulu edo liburua bilatu behar da liburutegi batean, demagun; ziberespazioan, berriz, bidalketa benetakoa da, estekaren gainean sakatuz gero pantailan jasotzen baita erreferentziaren testu osoa. Erraz ulertuko da horrek dakarren abantaila, aipatzen duenarentzat zein aipatua denarentzat. Bidalketa-estekez ari garenean behintzat, ez bereganatze-estekez ari garenean (in linking), hau da, eskatutako weborria jatorrizkoaren gainean jartzen denean¹⁶. Ez da ulertzen, beraz, analogia hori onartzen bada –OLIVEIRA ASCENSÃOk dioenez, erreferentzien askatasun orokorren printzipioa dugu nagusi¹⁷–, nola debeka dezakeen baten

batek bere weborriaren esteka beste baten weborriari agertzea. Inori ez zaio bururatzen, aipatutako muga legalen barruan noski, mundu inprimatuan hori proposatzea. Ekintza hori galarazteko egin daitekeen gauza bakarra zera da, eskubideen erreserba, Jabetza Intelektualari buruzko Legeko 33. artikuluan agertzen dena. Erreserba hori argi eta garbi agertu behar da “ustiapen-eskubideak erreserbatuta daudela argi erakusten duen modu eta lekuan” (146. art.)¹⁸. Erreserba hori, egunkarietan behintzat, literatur testu batzuetan baino ez da agertzen; horregatik, beste komunikabideek ezin dute autorearen baimenik gabe erreproduzitu –ez da aztertutako salbuespenaren barruan sartzen, gaurkotasun-informazioak ez direlako–.

Zer esanik ez, ez dira onargarriak jurisprudentziak uxatutako parasitismo-ekintzak. Oso ezaguna da Shetland Times versus Shetland News kasua (The Shetland Times Ltd. v. Wills and another, 1997, zehazkiago esateko). Shetland News egunkariak, bere laukien artean, esteka bat erabiliz, Shetland Times bere lehiakide boteretsuagoaren testu osoak sartu zituen, jatorria aipatu gabe, eta lauki baten barruan egoteagatik nabigatzailean agertzen den URL helbidea News-ena zen, ez Times-ena. Jakina, auzitegiek parasitatuaren alde erabaki zuten. Aukera hau galarazten dute egunkari batzuen abisu legalek, hala nola hemen erreproduzitzen dugun Vocento Taldearena:

“Bereziki debekatzan dira:

Webgunearen orri baten aurkezpena enpresarena ez den beste weborri baten laukian, framing delako teknika erabiliz, enpresaren baimen idatzirik ez badute”¹⁹.

Are gehiago:

“Webgunean argitaratutako irudi bat enpresarena ez den weborri edo datu-base batean sartzea, in line linking delako teknika erabiliz, horretarako enpresaren baimena ez badute”²⁰.

Oro har, zera diote:

“Enpresak beste webgune batean webgune honen hasiera-orrira edo beste edozein barruko orritara zuzendutako hipertestu-esteken ezartzeko

14. Jurisprudentziak, usu, Jabetza Intelektualari buruzko Legeak ematen duen babesetik at utzi ditu zerrenda hutsak, Auzitegi Gorenaren ustez behar adinako originaltasunik ez dutelako. Adibidez, Auzitegi Gorenaren 886/1997 Sententzian, 1997ko urriaren 17koa, Zibileko Aretoak emandakoan, non Euskal Herriko hiru Merkataritza Ganberek afiliatutako enpresa batzuen zerrenda bat ustez kopia zuen enpresa baten aurkako demanda bat aztertzen den. Auzitegi Gorenak ez zuen plagiorik aurkitu ekintza hartan. Esteka edo loturen zerrenda bat modu berean tratatuz gero, ez legoke plagiorik.

15. Ikus ROGEL VIDE, Carlos. Estudios completos de propiedad intelectual. Madrid: Reus, 2003; 499. or.

16. OLIVEIRA ASCENSÃO, José de. “O cinema na Internet, as hiperconexões e os direitos dos autores”. ROGEL VIDE, Carlos (koord.). In: Creaciones audiovisuales y propiedad intelectual. Madrid: Reus, 2001; 201. or.

17. Ibidem.

18. “En modo y colocación tales que muestren claramente que los derechos de explotación están reservados”.

19. “Quedan especialmente prohibidas: La presentación de una página del website en un marco de otra página web que no pertenezca a [nombre de la empresa], mediante la técnica denominada framing, a no ser que cuente con el expreso consentimiento por escrito de la empresa”.

20. “La inserción de una imagen difundida en el website en una página o base de datos, no perteneciente a [nombre de la empresa], mediante la técnica denominada in line linking, si ello no cuenta con la expresa autorización de [nombre de la empresa]”.

ko baimena egin behar du, baldin eta orri horiek lehiu oso batean eta webgune haren helbide elektronikoen azpian agertzen badira”²¹.

Uste dugu behar-beharrezkoa dela oso garbi bereiztea, eta horrelaxe egiten dute enpresa batzuek, aipua eta baimenik gabeko edukien erreproduktzioa. Bartzelonako La Vanguardia-tik hartutako paragrafo hau diogunaren adibide aparta iruditzen zaigu:

“[La Vanguardia-k] bere edukien aipamena beste webgune batzuetan, hauek nahi duten tramenduz, baimentzen du baldin eta ez badira La Vanguardia Digital-en edukiak”.

Estekak ageriak eta ez izkutuak direlakoan gaude, hau da, erabiltzaileari eskaintzen zaio esteka horiek maneiatzeko aukera, lotura ezkutuak, automatikoak, erabiltzearen ekintzarik gabe dabilzanak izan gabe, hori, adibidez OLIVEIRA ASCENSÃOk dioenez, lehiakidearen kaltez doalako²².

Eztabaidatzen den beste arazo bat zera da, ea esteka edo lotura ageriaren eta ensanblatutako esteken artean alderik dagoen; lehenengoa HTML lengoaiaren agindu baten bidez egiten da (HREF), non lotura moduan URL helbidea agertzen den, eta bigarrena, aldiz, hitz, esaldi, testu edo irudi bat da, eta haietatik URL batera abiatzen da. Lehen kasuak problema gutxiago sortzen du, erreferentzia oso argia delako, baina bigarren kasua bidalketa inplizitu bat da, erabiltzaileak, estekari sakatu arte, ez dakielako (suposatzen badu ere) nora eramango duen loturak. Sakatu arte, beraz, ez da nabigatzailearen egoera-barran URLa (erreferentzia, alegia) agertuko (aukera ez badu desaktibatuta). Ez dugu, bestalde, hemen aipatu behar beste arazo garrantzitsu bat, hau da, nori dagozkion dominio-izenen eskubideak, jabetza industrialari buruzko gaia delako.

Estatu Batuetan, sensu lato eta iuris tantum, esan gabeko lizentziaren doktrina erabili izan da: printzipioz, fair use errespetatzen duten erabiletarako eta lotutako webgunearen gaineko autore-eskubideak dituenak kontrarik ez badu esaten, zilegia da orri horretarako estekak erabiltzea, informazioaren trukaketa librea ahalbidetzeko²³. Lizentzia tazitua esan bidez alda daiteke. Baimen inplizituaren teoria Alemanian ere erabili

izan da. Espainian, Ignacio GARROTE irakasleak zera dio:

“Ez da posible gure lurraldean esteka arruntentz ezarpena debekatzea. Estekaren egileari dagokionez, erreproduktzio-eskubideak ez du zerikusirik, askotan kontrakoa esan bada ere, esteka bat sortzeak ez baitu ezer erreproduktzitea esan nahi”²⁴.

Argi omen dagoena zera da: esteka-bilduma huts bat ez litzatekeela autore-eskubide eta jabetza intelektualaren ikuspuntutik lan babesgarri bat izango, telefono-gida ere ez delako horrelakorik, originaltasun nahikorik ez duelako. Hori bai, datu-base gisa babes legala jaso zezakeen (Legearen 12. art.), eta kasu honetan originaltasuna bilatu behar da ez edukietan, egituran baino²⁵. Komeni da gogoratzea, bestalde, legeak datu-baseei ematen dien babesari sui generis dela.

Barruko estekak arazo legal gehiago sorrazten dituzte; baten batek, hala nola GARROTE irakasleak, zera pentsatzen du: “Haien jarrera Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 20. artikuluko komunikazio publikoaren ekintza gisa tipifika daiteke”²⁶. Guri, aldiz, hori oso diskutigarria iruditzen zaigu, esteka horiek, arruntek bezalaxe, obra intelektual jakin batera eramaten dutelako, obra horren erreferentzia ematen dute hipertestuaren teknika erabiliz. Oso bestelako arazoa da autoreak edo eskubideak dituenak haren obraren egiletza aitortzen dela bermatu nahi izatea, HREF esteka arrunt baten bidez argi gelditzen dena, eta ez beti barruko esteka batekin.

3.2.2. Barrurako estekaren kasua (deep linking)

Estekak biltzeko ekintza –komertziala–, bilatzaileek, adibidez, egiten dutena, zer URL edo WWW helbidean dauden informazio batzuk oinarritu ez ezik, webgune horren zer orri zehatzean dauden ere oinarritzen da. Dakigunez, WWW sarea karpeta eta azpikarpeten egitura logikoan oinarritzen da –karpeta eta azpikarpeta horiek guztiak URL nagusian sartuta daude–. Adibidez, komunikabide baten URL delakoak (Universal Resource Locator) honako forma hau izango luke:

<http://www.xxx.com>

21. “La empresa deberá autorizar expresamente el establecimiento de links de hipertexto (hipervínculos) en otra website dirigidos al homepage de este website o a cualquier otra página interna de éste, siempre que las correspondientes páginas aparezcan en una ventana completa y bajo las direcciones electrónicas propias del mismo”.

22. OLIVEIRA ASCENSÃO, op. cit.; 211 or.

23. Ikus Los Angeles Times v Free Republic, 1988ko kasua, kasu bat non Free Republic webgunean egunkarietatik hartutako artikulua osoak erreproduktzitzen diren, erabiltzaileek komenta ditzatela. Horrelako kasu batean argudia daiteke erreproduktzitutako artikulua ez direla obra berriaren parte funtsezkoa, irakurlearen iruzkinak direla funtsa, eta artikulua abiapuntu bat baino ez. Kasu honetan, irakurleak izango lirateke obra kolektibo baten autoreak.

24. “Respecto del creador del enlace, el derecho de reproducción, como tantas veces se ha dicho, no entra en juego puesto que el mero hecho de crear un enlace no significa reproducir nada”. GARROTE, El derecho de autor en Internet, op. cit.; 367. or.

25. GARROTE. El derecho de autor en Internet, op. cit.; 372. or.

26. GARROTE. El derecho de autor en Internet, op. cit.; 374. or.

Eta “kontenedore” nagusi horretan sartuta dauden informazioak karpeta batzuetan aurki zitezkeen, honela:

<http://www.xxx.com/gizartea/xxx.html>

Esteka-bilduma batek eraman dezake URL nagusira edo haren barruko karpetetan dauden informazioetara. Bigarren aukera hau, argi eta garbi, askoz abantailatsuagoa da irakurle edo erabiltzailearentzat, webgunearen ekoizleak markatutako bidea derrigorrean jarraitu gabe interesatzen zaiona eskura dezakeelako zuzen-zuzenean. Hipertestuaren abantaila nagusia hau da, hain zuzen ere. Pentsatzekoa da, beste alde batetik, webgunearen arduradunek nahiago dutela bezeroak hor tartean dauden orri guztiak ikustea, orri horietan publizitatea dagoelako, adibidez. Komunikabide batzuek praktika hau debekatu nahi izan dute, Hola aldizkariak, adibidez:

“Idatziz eskatutako errekerimenduaren bitartez Holak baimena eman ahal izango die, egokitzen jotzen duenean, bere webgunerako estekei, esteka horiek bere webgunearen hasierako orrira daramatenean, eta ez beste xede batzuetarako”²⁷.

Barrurako estekaren aldeko zein aurkako argudio juridiko edo ez juridikoak egon badaude. Praktika horren aurka aipatu izan dira, esate baterako, internautak sufritu dezakeen nahaspiloa, batez ere laukiak erabiltzen direnean –kasu batzuetan juridikoki zalantzak sortzen baditu ere, ikusi bezala–, marka-zuzenbidearen aurka joango litzatekeena, hau da, jabetza intelektualean baino industrialean sartuko lirateke –gogoratu behar dugu Espainian bi kontzeptu hauek, Common law-ko lurraldeetan ez bezala, bananduta daudela–, baina, batez ere, publizitateko sarreren galera, iragarleek lehen hiperdokumentuaren lehen mailatan agertu nahiago baitute. Zer esanik ez, zigor arloko arazo juridiko baten aurrean geundeke hiperesteka fede txarrez erabiltzen bada, “hitz iraingarri bat enpresa baten orrirako edo norbaiten argazkirako lotura denean”, eta difamazio, irain edo kalumnia-kontzeptuaren barruan sartuko litzateke (Jabetza Intelektualari buruzko Legea, 39. art.)²⁸. Animus iniuriandi eta animus informandi-ak erabakigarriak dira zer suposamenduren aurrean gauden jakiteko²⁹. Informazioaren Zerbitzuei buruzko Legeak, nolabait, arazo hau aurreikusten du, eta Interneteko hornitzaileek kulparik ez dutela dio, ez badakite estekak lotzen duen bezeroen weborria ez dela legezkoa edo esteka ezabatzeko arintasunez badabiltza. Esteka engainuzkoa denean ere berdin, marka batera daramala ema-

ten duenean baina egia ez denean, lehiaren zuzenbideak dioena kontuan hartu behar da.

Informazio-zerbitzu ezagunenetakoz batzuk, Google News adibidez, bilduma bat izatean dautza; alegia, algoritmo konplexuez osatutako programa batek automatikoki sortzen duena, non informazio hierarkizatuak irakur daitezkeen –albiste batzuen garrantzia azpimarratzen da–; albisteak ez dira osorik erreproduzitzen (gehienetan, izenburua eta sarrera edo atariko lerrokada baino ez da agertzen zerbitzu hauetan), eta albisteen jatorrizko weborrietara bidaltzen du esteka batek.

Ekinbide honen eta komunikabideen informazioa jarraitzen duten enpresen arteko ezberdintasuna zera da, lehenengoak ez duela beste hedabideetako informazioa osorik erreproduzitzen; haien existentziaz informatzen du, besterik ez, eta gero, hiperloturaren bidez, jatorrizko iturburura bidaltzen du. Hau da, informazio hori osorik ezagutu nahi duen irakurleak jatorrizko komunikabidera jo behar du nahitaez. Horrela, argi dago hedabide horien negozioaren aurkakoa ez dela; alderantziz, irakurle berriak ematen dizkie, baina irakurleek ez dituzte komunikabideen bitartez ezagutu behar, orain arte bezala; orain, Interneten dauden informazioetara ailegatu daiteke bilatzaile baten bidez edo prentsa-laburpen baten bidez. Google News bezalako zerbitzuetan agertzen diren albisteak partzialki erreproduzitzen dira, nahiz eta parte garrantzitsuenak ikusgarriak izan –baita azalekoenak ere, bide batez esanda, azalean edo hipertestu-egituraren aurreko mailan agertzen direlako–, eta erreprodukzioa zatikakoa izateak bermatzen du aipu baten aurrean gaudela. Informazioaren ezagupena osatzeko, jatorrizko komunikabidera iritsiko da irakurlea, berdin da dohainekoa edo ordainduzkoa den (EIPais.es-en kasuan, adibidez). Horrela beste arazo bat konpontzen da: bezeroak ordainduzko komunikabidearen informazioa eskuratu nahi izanez gero, harpidetuta egon beharko du. Press clipping egiten duen enpresak, zeintzuk diren interesa dakizkiokeen informazioak eta non irakur ditzakeen esaten dio, baina ez dizkio albiste osoak ematen, haien gaineko ustiapen-eskubideak beste pertsona natural edo juridiko batenak direlako. Gaur egun arte ezagutzen genituen prentsa-laburpenen eta digitalen arteko aldea horixe da, hain zuzen ere, prentsa-laburpen klasi-koak osatzen dutelako besteen informazio osoen erreprodukzio edo fotokopia. Prentsa-laburpen digital berria egiteko, hala ere, barrurako estekan (deep linking delakoan) oinarritzen da.

27. “Previo requerimiento por escrito, Hola podrá autorizar, cuando lo considere oportuno, enlaces a su sitio siempre y cuando tales enlaces lo sean para su utilización en la Web y a la página inicial de su sitio, y no para otros propósitos”.

28. “Cuando una palabra injuriosa pueda ser el enlace que conduzca a la página de una empresa o a la foto de alguien”. ROJO, Nacho. “‘Deep linking’, enlaces problemáticos”, In: Consumer.es [http://www.consumer.es/web/es/especiales/59683_print.jsp].

29. Ikerketa on-on bat, Silvia DIAZ ALABARTEK egindakoa, Comentarios a la Ley de Propiedad Intelectual, op. cit., liburuan aurki daiteke; 662. or.

Arazoa, lerro hauek idazten ditugun unean Espainiako jurisprudentziak aztertu ez duena, Europako beste lurralde batzuetan arakatu da, aldiz. Pare bat kasu, behintzat, ezagutzen dugu:

- Newsclub v Mainpost kasua: 2003ko martxoan, Alemaniako auzitegi batek erabaki zuen Mainpost egunkariaren argitalpen digitalaren barruko orrietarako estekek autore-eskubideak urratzen zituztela. 2003ko uztailaren 17an, Alemaniako Errepublikaren Federalaren Auzitegi Gorenak kontrako iritzia azaldu zuen, errekurtsioa jarri zuenak praktika hori baliabide teknikoek galarazi zituela argudiatu zuelarik³⁰.
- Danimarkako Newsbooster kasua: Alemanian ez bezala, Danimarkan auzitegi batek agindu zuen Newsbooster bilatzailetik kazetaritza-informazioetara zeramaten barrurako estekak kentzea. Newsbooster-ek bilaketa errobotizatu eta kazetaritza-informazioetararako estekek osatutako berripaper digitalen konbinaketa bat eskaintzen zuen.

Hemen aztertzen ari garen beste alderdi batzuk bezalaxe, barrurako estekena ere korapilatsua da. Nahiz eta, esan bezala, estekak jatorrizko obrara bidaltzea aipurekin pareka daitekeen, Kazetarien Nazioarteko Federazioa kezkatu ageri da bere iritziz kazetariarentzat kaltegarria izan daitekeelakoan. Paragrafo esanguratsu hau itzuli dugu:

“Nahiz eta informazio-askatasuna oraindik ere kazetariarentzat oso puntu garrantzitsua izan, beste osagarri batzuk kontuan hartu beharko genituzke. Erabiltzailea egunkari batzuen bilduma zehatz baten artikuluetara bidali baino egiten ez duena, eta, beraz, Interneten dohainik aurki daitekeen material batez oinarriturik etekin ekonomikoa sortzen duena, kazetarien autore-eskubideen aurkako eraso bat da. Jakina, ekintza hau material honen erabilera berri bat da, eta kazetariak ordainsari bat jaso beharko luke”³¹.

Egia esan, argudioak ez du zalantzan jarren hiperesteken eta aipu edo erreferentzien baliokidetzat juridikoa, baizik eta besteen obra erabiltzeko ordainsaria, nahiz eta, mundu inprimatuko beste analogia bat eginez, autoreei edo eskubideak dituztenei baimena eskatu behar bilduma

bibliografiko huts bat egiteko, hau da, artikulua edo liburu multzo baten izenburu eta datuen zerrenda ordenatu bat. Berriz ere, gakoa da nola bateratu informazioaren ibilera librea eta autoreen interes ekonomikoak.

Europako beste lurralde batzuetan kazetariak enpresa bati lagatutako obraren erabilera berriei buruz hartutako erabakiak kontuan hartzeko modukoak dira. Lurralde eskandinaviarretako jurisprudentziatik –non kazetariak gehiago elkartu eta sindikatzen diren, eta horregatik alderdi hauek jadanik negoziatuta dauden– honako kasu hauek azpimarratzen ditugu:

- Suedian, jurisprudentziak hirugarren pertsona batek bere datu-basean kazetari batek egunkari bati ustiatu dezan lagatutako obra bat sartzea debekatu du. Carl Selling vs Mediearkivet Svenska AB kasuaz ari gara. Auzitegiak, 2003ko apirilaren 7ko sententziaren bitartez, komunikabide suediar batzuek osatutako azken enpresa hau Göteborg Posten egunkariko kazetari freelance bati 1.500 euro ordaintzera derrigortu zuen. Kazetariak Suediako Kazetarien Elkartearen laguntza izan zuen. Elkartearen argudioa zera zen: kazetariak, erreproduzitutako bi artikuluetatik, egunkarian edo bere argitalpen digitalean argitaratu balitu kobratuko zukeen beste jaso behar zuela. Auzitegiak arrazoi hauek onartu eta Mediearkivet-enak –egunkariaren (Espainiako legearen arabera, obra kolektiboan) eduki osoa “erosi” edo eskuratu zuela, eta ez egunkaria osatzen duten artikulua bakoitzaren alde batera utzi zituen.
- Norvegiako Apelazio Auzitegiak ere erabaki zuen Dagbladet egunkariak bere argitalpen inprimatuan lehen agertutako artikulua bat erabil zezakeela argitalpen digitalean, autorearen baimena eskatu gabe. Epaileek aintzat hartu zuten kazetariaren eta enpresaren arteko ahozko akordio baten interpretazioa (kontratu zibil bat, beraz), zeren eta, zabalduetako praktikaren arabera, nolabait enpresari lagatzen baitzitzaion testu hori bi edizioetan erabiltzea, eta kazetariaren obligazioa zela esatea Interneten erabiltzea debekatu zuela.

30. Steve OUTINGek, Editor & Publisher aldizkariko kazetaria eta Estatu Batuetako Florida estatuko Poynter Institute-ko partaidea, zera uste du: “Esteka horiek alde batera utzi nahi badira, beraiek debekatzeko abisu legalak jartzea tontokeria bat da: arrazoiren batengatik editoreak barrurako loturei baimenik ez ematea erabakiz gero, konponbide logikoa trafikoa hasierako orrira (homepage delakora) zuzentzea da. Hori ere oso estrategia txarra da, baina ez jendeak ezagutzen ez dituen eta buruhausteak sortuko dituzten abisu legalak jartzea bezain txarra”. Apud ROJO, op. cit.

31. Kazetarien Nazioarteko Federazioaren webgunean irakur daiteke (<http://www.authorsrights.org/default.asp?Index=1884&Language=EN>). Jatorrizko aipua, ingelesez, honako hau da: “Although freedom of information still remains the crucial point for journalists, other important elements should be taken into consideration. A search engine that only directs a user to articles from a particular selection of newspapers and thereby generates a commercial profit from material freely accessible online constitutes a breach of journalists’ authors’ rights. Indeed, this action represents a new use of this material which should entitle the journalist to a corresponding remuneration”.

- Danimarkan ere hitzarmen kolektiboak sinatu dira, non kazetarien eskubideak hirugarren pertsoneri lagatzeko kasuak aurrikusten diren, hala nola prentsa-laburpenetan, webguneetan edo komunikabide tradizionalen bertsio digitaletan erreproduzitzea, kasu horiek hasiera batean kazetarien eskubideak eskuratzen dituzten enpresen “ekintza arrunt” suposamendurik ez direlakoan. Batik bat, Danimarkako kazetarien elkarte eta sindikatuak oso kezkatuta agertu dira haien partaideen obrak Interneteko artxibo hemerografiko handietan sartzeagatik, egunkari edo aldizkariak egiten dituzten enpresak diren edo eskubideak eskuratzen dituzten enpresak diren. 2003an akordio bat lortu zen: hilero 130 euro jasoko zituen lan-kontratua zeukan kazetari bakoitzak, eta bere ordainsariaren %12,5 gehiago kontratu zibila zeukan kazetari bakoitzak, haien obra erreproduzitzen bazen aipatutako kasuetan, 1997ko urtarrilaren 1etik³².
- Beste lurralde batzuetan, askoz argiago: Frantziako 1992ko Code de la Propriété Intellectuelle delakoak espresuki aurrerikusten du aldizkarietan erreproduzitzen diren obren autoreen ustiaketa banandu bat egiteko aukera (121.8. art.).

Datu-base hauek autoreak diren kazetarien baimena eduki behar dute, obraren ustiaketa berria delako, Espainiako Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ezarri duenez Gedeprensa eratu nahi zuten enpresen proposamena deuseztatzeko, prentsa-laburpenak egiten dituzten enpresak “press-clipping gisa erreproduzitu daitezkeen gauza guztiak lituzkeen datu-base handi baten bidez hornitzera” behartu nahi zituelako. Lagapen eskusiboa egin bada ere, doktrina banatzen da Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 48. eta 49. artikulua interpretatzerakoan, eztabaidatzen baita ea eskubide eskusiboa jaso duenak hirugarren pertsona bati eskubide ez eskusiboak lagatzeko orduan autorearen baimena eduki behar duen. Zuzenbide konparatua jarraituz zuzenbide alemaniarra aintzat hartzen dutenek diote “eskusiba duenari obraren erabilera ez eskusiboa baimentzeko ahalmena aitortzen zaiola, baina fakultate hori [...] autorearen baimenak dago baldintzatuta”³³. Sorkuntza intelektuala bezalako arlo personalean, logikoa da autoreari beti kontsultatzea bere obra erabili nahi dugunean, arazo ideo-

logikoak, adibidez, izan ditzakeelako egileak. Betiere, gogoratu behar da eskusibaren iraupena, printzipioz ustiapen-eskubideen lagapenaren iraupen berdina, laburragoa izan daitekeela itunaren bitartez, autoreari aukera gehiago emango lizkiokeena³⁴.

Azaldutakoaren arabera, honako konklusio honetara iristen gara: banakako autore edo autore taldekako autoreen eskuetan dago enpresei lagatzen zaizkion ustiapen-eskubideen mugak, iraupena, edukia ezartzea, eta horrela gero hirugarren enpresek obra hori erabili nahi izanez gero negoziatu egin beharko da autoreekin ere bai –eskubiderik gordetzen badute–, eta ez bakarrik eskusiba lortu duten pertsona juridikoekin. Era berean, oso interesgarria deritzogu Santiago CAVANILLAS MÚGICAK lagapen eskusibo eta lehiaren defentsari buruz esandakoa:

“Badirudi lagapen eskusiboak edo, hobeto esanda, berauek egikaritzeko burutzen diren egintzak, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikuluan jasotzen den debekuan sartzen direla, zera hartzen duena: “Edozein akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo itundutako praktika, edo nahita paraleloa, baldin eta lurralde nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko helburua badu”, eskusibaren itunak beste enpresariei eragotzen baitie lagatuko obra intelektualaren ustiapena”.

Beste eskubide bat, ustez bigarren mailakoa baina gure gai honetan garrantzitsua izan daitekeena, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 22. artikuluan jasotzen den bilduma-eskubidea da:

“Bere obren gaineko ustiapen-eskubideen lagapenak ez dio autoreari eragotziko bilduma aukeratu edo oso batean jasotzea”.

Aurkako itunik ez balego, obraren gaineko bilduma-eskubidea autore edo egileari dagokio. Honek esan nahi du kazetariak, argazkilariak, marrazkilariak beretzat gordetzen duela bere artikulua, erreportaje, argazki edo marrazkien bilduma argitaratzeko aukera. Duela urte dezente legeziaz italiar batek esan zuen bezala, alde batetik eragotzi dezake artikulua horien bigarren erreproduktzioa eta, baita ere, berauen bilduma argitaratzea³⁵. Horren arabera, ez litzateke amestigarria izango, demagun, egunkari bat egiten duen enpresa argitaratzaile batek bere irakurleek bidaltako gutunen bilduma bat argitaratzea –orain, gainera, edizio elektronikoarengatik gehiago eta luzeagoak direnak– beraien autoreen baimenik

32. Informazio gehiago Kazetarien Nazioarteko Federazioaren webgunean [http://www.authorsrights.org/default.asp?index=1419&Language=EN].

33. “Se reconoce inicialmente al exclusivista la facultad de autorizar el uso no exclusivo de su obra, pero tal facultad viene condicionada [...] al consentimiento del autor”. CAVANILLAS MÚGICA, op. cit.; 819. or.

34. Ikus, esate baterako, 2002ko abenduaren 31ko Auzitegi Gorenenaren Sententzia, 1304/2002 zenbakia, Gela Zibilarena, enpresa argitaratzaileak erabili ez dituen argazkiak argazkilariarekiko kontratua irautsi ostean erabiltzerik ez dagoela dioena, bestela autorearen eskubide ekonomikoak kaltetzen direlako.

35. Comentario de Medelli a sententzia del tribunale di commercio della Senna del 12 de septiembre de 1838, aipatzen da LUCIANI, Le pubblicazioni..., op. cit. liburuan; 89-90. orr.

gabe, inplizituki egunkariaren atal horretan behin argitaratzeko eskubidea baino ez dutelako eman. Era berean, ez litzateke onargarria izango irratia edo telebista bateko saio batean egindako testigantzak bideo edo DVD batean biltzea eta saltzea –legeak edozein obra babesten du, kalitatea dagoen eta zenbaterainokoa denez kezkatu gabe– haien egileen baimenik gabe.

4. Kopia pribatuko konpentsazio-ordainsaria

Orain arte aztertutakoaren arabera, kopia pribatuan oinarritutako eginbide ekonomiko bat dagoela onartuko bagenu, hori egiteagatik kopia pribatuengatik konpentsazio-ordainsaria legoke. Nola ulertu zenbat kopia egiten diren? Dagokion kanona eta onuren banaketa –enpresei eta autoreei– oso gauza zaila da, eta aldi berean garrantzitsuenetariko bat, beste agente batek parte har lezakeelako ere bai, kudeaketa-elkarteak –orain daudenak edo sor liratekeenak–, zeinen gaurko funtzionamenduak oso kritika mingotsak jasotzen dituen. Hala eta guztiz ere, 2004ko urtarrilean Europako parlamentuak eskubideen kudeaketa kolektiboko elkartei buruzko erresoluzio bat iragarri zuen, zera zioena, “autoreei, erabiltzaileek egiten duten sarbide eta obra intelektualaren erreproduktzio librearengatik, konpentsazio-ordainsari ekitatezko bat ziurtatzeko modu bakarra dira, eta ezin dira eskubideen kudeaketa digitalaren ordezkatu”. Aldi berean autoreek berek kudeaketa-elkarte horiek kontrolatzea eta “modu gardenago batez” kudeatzea gomendatzen zuen³⁶.

Legeak, kopia baimentzen duenean –batik bat, erabilera pribatuetarako–, ezartzen du jatorrizko obraren eskubideak dituenari konpentsazio bat ordaindu behar zaiola, jatorrizko aleak saltzeari uzten diolako galerengatik. Jabetza Intelektualari buruzko Legeak arautzen du 25. artikuluan (1987ko Legean ezarri zen estrainekez eskubide hau), eta “kanon” honen ordainketa kopia egiteko erabiltzen diren gailuen gainean egiten da. Legeak aurreikusten du kopia pribatuarengatik konpentsazio-ordainsariaren pagamendua egin behar dela “liburu edo argitalpen moduan zabalduko obrei buruz, bai eta fonograma, bideograma edo bestelako soinu- ikus- edo ikus-entzunezko euskarriei buruz ere”. Horregatik, geroagoko erregelamendu batek ezarri ezean, konpentsazio-ordainsaririk at geratuko lirateke aldizkari zein egunkariak, baina ez ikus-entzunezko saioen kopiak, nahiz eta, CEDRO

kudeaketa-elkarteak dioenez, Espainian aldizkari eta egunkariaren kopia askoz gehiago egiten diren liburuaren baino. Inprimatutako materialaren kopia negozio itzela da. CEDROren txosten batek dioenez, Espainian urtero ia 3.500 milioi orri –gehienak autore-eskubideak dituztenak– fotokopiatzen dira, kopurua gero eta txikiagoa bada ere, gero eta gehiago kopiatzen baita Internetetik eta gutxiago orrialde inprimatuetatik. Orrialde horietatik 782 milioi, ia laurdena (%22,4), egunkari-aldizkarietatik datoz³⁷. Fotokopia gehienak, betiere txosten horren arabera, hezkuntza arloan egiten dira –ikasle bakoitzak urtero 465 bat kopia, gutxi gorabehera bi eskuliburu mardul samar, egiten dituela kalkulatu da– eta Administrazioan bertan, Espainian egiten diren kopia guztien %66ra iristen da.

Kopia pribatuarengatik konpentsazio-ordainsari edo kanonaren kontzeptua beti eztabaidagarria da. Lehenik eta behin, Xavier RIBASek gogoratzen duenez, “legedi espainiarrean kopia pribatua definitzen duen ezaugarri bat ustiapen-eskubideak dituenaren baimenik eza da”³⁸. Zaila da beti zergatik sortzen den ordaintzeko beharra, nola lortzen den kanonaren ordainketa eta, noski, nola banatzen den autoreen artean horrela lorturiko dirua. Hala ere, bi urtero Gobernuak aspektu horiek errebisatu behar ditu, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren arabera. Biltzeko ekintza hori –eta onuren banaketa gero– kudeaketa-elkarteek egiten dute. Elkarte hauen ekinbidea askotan kritikatu da. Berez, lerro hauek idazteko orduan egiteke dagoen lege-erreformarako egitasmoan entitate hauei gardentasun eta kontuen publikitate gehiago galdutako zaie. Oraingoz, kazetarien nazioarteko elkarteek zerbait esan dute horretaz. Esate baterako, Kazetarien Nazioarteko Elkarteak 2003an Alemaniako IG Medien sindikatuko W. Mayer eta Frantziako Sindikatu Nazionaleko J.P. Garnier komisionatu zituen Europako biltze-elkartei buruzko txosten bat egin zezaten. Txosten horrek kazetariei gomendatzen die jadanik dauden biltze-elkarteetara sartzea edo, hori egiterik ez balego edo zailtasunak jarriko balituzte, berezkoak sortzea. Espainian, kritikarako zio nagusietako bat kudeaketaren derrigortasuna izan da, batzuetan elkarte-askatasunaren aurkakoa izan zitekeelakoan³⁹.

Ba al dago obra gaurkotasuneko informazioz kontzeptuatzeko hutsagatik prentsa-artikulu eta albisteen fotokopia kopia pribatuarengatik konpentsazio-ordainsaririk at uzterik, informazio-eskubidean ustez babesa bilatuz, autoreen eta publikoaren interesen arteko oreka eskaini nahian

36. KAZETARIEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA. Authors' Rights Newsletter. 2004ko martxoa; 6. or.

37. CEDRO (Centro Español de Derechos Reprográficos). La fotocopia en España de obras impresas. Resultados del estudio de CEDRO. Información para medios de comunicación. 8 de mayo de 2003. Madrid: CEDRO, 2003 [http://www.cedro.org].

38. RIBAS, Xabier. La copia privada de Internet, 1997 [http://www.omnet.es/01005007.htm].

39. Ikus MARTÍN VILLAREJO, Abel. “La gestión colectiva de los derechos sobre las creaciones audiovisuales”. Rogel Vide, Carlos (koord.). In: Creaciones audiovisuales y propiedad intelectual. Madrid: Reus, 2001; 215-253 orr.

edo? Egia da prentsako, irratiko eta telebistako informazioak –baita Internetekoak ere– lege-salbuespen bat direla eta, zenbait suposamendutan –eta horietan baino ez–, erreproduzitu daitezkeela, betiere egilea eta jatorria aipatuz eta autorearen eskubide moralak eta finantzabidak jartzen dituztenen eskubideak ere errespetatuz. Baina horrek ez ditu obra horiek jabego publikoan jartzen, ez ditu jabegabeko ondasun bihurtzen. Oraingoan, kazetarien elkarteek kudeaketa kolektiboko elkarte batek bakarrik (CEDROK) konpentsazio gisa diru-kopuruak sorrarazten dituzten obraren artean kazetaritzakoak sartzea.

Europako beste lurralde batzuetan ere kopia pribatuarengatik konpentsazioaren bat lortzeko beharra argudiatu da. Danimarkako prentsa-argitaratzaileek 2003an InforMedia enpresa sortu zuten, press clipping zerbitzuak eskaintzeko. Bertako kazetariak obraren erabilera berriarengatik konpentsazio bat kobratzeko akordio batzuk lortu zituzte. Erabilitako irizpidea fotokopiarengatik lortzen den ordainsari antzekoa kobratzea izan da. Horretarako, Danimarkako Kazetarien Batasuna Kobenhavn-eko parlamentuak Jabetza Intelektualari buruzko Legea erreformatzen saiatu zen, kopia pribatuarengatik ordainsaria kopia digitalarengatik ere aplikatu zedin, aipatu dugun Direktiba europarraren gomendioak jarraituz.

Espanian, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 25. artikulua gerogoko erregelamendu-garapenerako utzi du zehaztea zeintzuk izango diren kopia pribatuarengatik ordainsaria jasoko luketen produktuak. “Arazoa”, zioen Gedeprensak, “onura horiek lortu ahal izateko gutxienezko aldizkatasun bat –hilerokoa, behintzat– eta aleko 48 orrialde eduki behar direla da, hau da, liburuek baino betetzen ez duten baldintza”⁴⁰. Egia esan, konklusio horretara iristen da azaroaren 27ko 1434/1992 Erret Dekretuaren 9.3. artikulua aplikatuz gero, hileroko eta sei hileroko aldizkatasuna eta gutxienez 48 orrialde zituen aldizkariak liburuekin parekatzen zituelako. Horrela, egunkariak, astekariak edo hamabostekariak –aldizkari gehienak, eta zabalkunde handiena dutenak gainera– kanpoan gelditzen dira.

Kataluniako Kazetarien Kolegioak eta Madrileko Prentsa Elkarteak erabaki zuten, helegite kontentzioso-administratibo baten bidez, Erret Dekretua Auzitegi Gorenaren aurrean inpugnatzea, batere arrakastarik gabe, 1997ko otsailaren 10eko sententziak helegite hori bertan behera utzi zuelako. Merezki du zenbait paragrafo gogoratzea:

“Argitalpen hauen salneurria zein den kontuan harturik, eta banakako aleak zertarako diren, hau da, ez direla erosten gordetzeko, ira-

kurri eta gero botatzeko baizik, ez dago pentsatzerik hiritar-kopuru esanguratsu baten portaera denik egunkari baten erosketa beraren kopiarengatik ordezkatzea”.

Aipatutako sententziak zioen ez zegoela lortu gabeko irabazirik (lucrum cesans) praktika horretan. Press clipping egiten duten enpresen portaera, aldiz, horixe izan daiteke; horregatik zehaztu beharko litzateke kopien kopuruak bentsan kaltetzen duen eguneroko aldizkariaren salmentan. Horregatik, aipatutako sententziak zera dio:

“Ez da horregatik ulertu behar idatzizko argitalpenen kopiak erreproduzitzeko teknologiaren aurrerapenak, zabalkundeak eta merkeago bihurtzeak [...] saldatuko aleen murrizpen-arrisurik sor dezakeenik, eta autore-eskubidearen ondare-ikuspegitik lortu gabeko irabazi edo onura-faltarik dagoenik”.

Horixe da, gure ustez, gakoa: zer punturaino diren prentsa-laburpenak jatorrizko ekoizleentzako onuren kaltea, eta nola konpon edo konpentsa daitekeen.

Beste gako bat: irabazteko asmoa dagoenean kopia pribaturik ote dagoen. Prentsa-laburpen lanbidearen kasuan –behintzat, horretarako kontratatzen diren enpresen kasuan–, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak argi eta garbi esan du: “Ez dago mugapen hori [ustiapen-eskubideen egikaritze eskusiboari egiten zaiona] aplikatzerik press clipping eginez enpresa batek prentsa-ko edukiak irabazteko asmoz erreproduzitzen baditu”.

Doktrina gehienak, bere aldetik, berdina dio: ez dagoela kopia pribaturik baldin eta lukro asmorik badago. Esate baterako, Xavier RIBASEK gogoratzen du, kopia pribatutzat hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar direla: kopiagilearen erabilera pribatua izatea, kopiagilea obraren erabiltzaile legezkoa izatea, obra erabilerara kolektiborako ez izatea, kopia irabaziak lortzeko ez izatea, eta erreproduzitzeko obra ordenagailu-programa bat ez izatea⁴¹. Badirudi lehen baldintzak galdatzen duela kopiagilea –hau da, kopia agintzen duena eta haren onura gozatzeko duena– pertsona fisiko bat izatea; RIBASentzat, erabilera kolektiboa ez da posible, “eta uste dugu arlo honetan pertsona juridikoak ere sartu beharko liriatekeela, berez izaera kolektiboa dutelako, non kopia pribatuak eskubideen gozatzaileri kalte larriak sor diezazkiokeen”. Badago, ordea, salbuespenik: liburutegiak, esate baterako. Press clipping-en kasuan, bezero asko erakunde publikoak dira, baita ministerioak edo gobernu autonomikoetako sailak, edo parlamen-

40. SALAZAR, Idoia. “Las editoras de prensa se rebelan contra la práctica ilegal del ‘press clipping’”. In: El País, 2003ko urriaren 24koa.

41. RIBAS, op. cit.

tuak ere. Irabazi asmorik ez egoteari buruz, abokatu katalanak berriz ere dio: "Auzitegi Gorenaren doktrina etengabearen arabera, irabazi asmoa edozein onura edo abantaila patrimonial da, baita obraren erabilera profesionala edo titularrari royalty-rik ez ordainduz lortzen den aurrerapen ekonomikoa ere"⁴².

5. Ondorioak

1) Doktrinak, etengabe, Carmen PÉREZ DE ONTIVEIROsek adibidez, "jokoan dauden interes ezberdinak orekatzeko konponbideak bilatzea" eskatzen du. Horrek esan nahiko luke, prentsa-laburpenen kasuan, malgutasuna behar dela ekinbidearekin jarraitu ahal izateko eta autoreen eta haien eskubideak gozaten dituen interes zilegiak ere bete daitezen. Kontuan hartu beharko liriateke, beste alde batetik, interpreteen eskubide lotuak (droit voisins edo konexoak), hau da, erreproduzitzen diren ikus-entzunezko obrak aurkezten dituztenen edo esatarien eskubideak.

2) Besteen informazioak erreproduzitu eta Interneten prentsa-laburpena jartzen denean, komunikazio publikoko ekingintza baten aurrean gaude, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/29/CE Direktibak aipatzen duen eta doktrinak gomendatzen duen eskubidea gauzatzen ez den bitartean, behintzat. Horregatik, gomendagarria da komunikazio publiko hori prentsa-laburpena egiten duen komunikazio-bulegoa kontratatzen duen erakunde eta enpresara mugatzea, laburpen digitalizatua Interneten baino intranet itxi batean jarriz, balizko kaltea murriztu nahian.

3) Aipuaren salbuespena, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 31. artikuluan jasotzen dena, erabili izan da prentsa-laburpenak egin ahal izateko justifikaziorik bilatzen denean. Salbuespen hau zaila da onartzen, irabazi asmoa, eta ez irakaskuntza edo ikerkuntza asmorik, dagoenean. Bestalde, aipua besteen obra baten zati batzuk erabiltzea da, ez obra osoa. Prentsa-laburpena informazioen erreproduzizio hutsa ez denean, baizik eta beraietan oinarritzen den gaurkotasunari buruzko iruzkina, arazoa desagertzen da. Beste alde batetik, aipuaren salbuespenarekin parekatzen da erreseina edo prentsa-errebista. Indefinizio legal baten aurrean gaude, prentsa-laburpena eta prentsa-errebista berdinak izan baititezkeen. Badirudi legegileak batik batik pentsatzen duela komunikabide baten atal batean, non beste komunikabideetan agerturiko informazio batzuen zatiak erreproduzitzen diren. Ez du ematen horrelakoak direnik besteen

informazio osoak bakarrik erreproduzitzen komunikabideetat agertzen direnak (Periodista Digital, kasu), beste komunikabideei lehia desleiala eginez. Gauzak horrela, eta Konstituzioak aitortzen duen informazio-eskubidea ere jokoan dagoenez, hobe litzateke agian, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak egin duenez, prentsa-laburpenak komunikabideekin parekatzea. Edozein kasutan ere, eta prentsa-laburpenak egiten dituzten zerbitzu edo enpresen ekingintza geldiaraz ez dadin, onena dateke kontzeptu hauek guztiak eskuzabaltasunez interpretatzea. Liburutegiek duten erregimen bat bezalakoa, zenbat irakurlek erabiliko dituzten kopiak zehaztuz, onuragarria litzateke gure ustez. Beste modu batez esanda: era iraunkor eta bateratu moduan informazioak erreproduzitzeko eskubidea edo lizentzia lortu beharko litzateke, ezinezkoa baita informazio bakoitzaren eskubideak, banan-banan, negoziatu eta lortzea.

4) Komunikabide digitalak direnean, komeni da, ahal bada behintzat, informazio osoen erreproduzizioa ez, baino esteka batez hartara bidaltzea. Modu inprimatuan edo ikus-entzunezkoan ezina zena, Interneten, hiperloturen bidez, erraz askoa da, jurisprudenziak kontrakoak ez dioen bitartean erreferentzien askatasun orokorraren babespean daudelako. Horretarako, baldintza batzuk bete behar dira:

- Aipatutako informazioaren URL delakoa mantentzea, laukietan sartu gabe, askoz gutxiago engainuzko moduan (parasitismoa).
- Lotura bidalketa bat izatea, ez bereganatze bat; alegia, nabigatzailean daukagun leihoaren ordean agertzea baino hobe da beste leiho bat zabaltzea.
- Lotura argiak izatea, ez izkutu edo automatikoak, hau da, erabiltzaileari eman behar zaio eskaintzen zaion erreferentzia jarraitu edo ez jarraitzeko ahalmena. Legalki, hobeak dira esteka ageriak, erreferentziak nora daraman aipatzen dutenak, implizitoak –igertzera behartzen dutenak– baino.
- Barrurako loturak ez ditu gure jurisprudenziak debekatu, enpresa batzuek hala nahi badute ere. Printzipioz, aipatu ditugun portaera-arauak errespetatzen badira, ez legoke liburu baten orrialde-oinetan beste liburu edo artikulua baten erreferentzia dagoen beste arazorik izan behar. Ordainketa-bidezko informazio batera bidaltzea legezkoa da, bezeroak ezagutu nahi izanez gero ordaindu egin beharko duelako harpidetza. Press clipping egiten

42. Ibidem.

duen zerbitzuaren zeregina bezeroari interesatzen zaion informazioa non dagoen esatea da, ez informazio hori eskaintzea.

5) Edozein kasutan ere, gaurkotasuneko informazio horien erabilera (Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 33. artikulua) eta autoreen edo beren eskubideak gozatzen dituenen eskubideak bateragarriak dira. G. KOUMANTOS irakaslearen ustez, legezko lizentzia edo derrigorrezko lizentzia baten aurrean geundeke. “Bakarrik legoke”, dio Lehiaren Defentsarako Auzitegiak, “ordainsariko eskubide bat eta baimen-eskubidearen aplikazio mugatu bat”. Kontzeptu honen benetako ezarpenak eta komunikabide kontratatzaileen eta kazetarien arteko negoziazio batek, lehenik, eta parte horien eta prentsa-bulegoen artekoak, bigarrenik, prozedura azkarrak eta ia automatikoak aurkitu beharko litzukete erabakitzeko zer konpentsazio ekonomiko eta zer ordainketa egin behar diren material hori erreproduzitzen denean.

6) Zeini dagokio eskubide horien kudeaketa? Gogora dezagun, berez, obra kolektibo diren aldizkari-egunkari, irrati edo telebistetatik hartutako banakako obren gaineko eskubideak autorea-renak direla, eta enpresek modu eratorrian eskuratzen dituztela. Autoreek beraien obrak erreproduzitzeagatik jaso beharko luketen ordainsaria, kopia pribatuarengatik konpentsazioarekin parekagarria, sistema arin eta malgu baten bidez egin behar dela. Kazetariak berek, beren enprekin sinatzen duten kontratu edo hitzarmen kolektiboen bidez, edo merkataritza-elkarteak sortuz, parte hartu beharko lukete beren eskubideen kudeaketan. Lehiaren Defentsarako Auzitegiak Gedeprensa-ren inguruko espedientearen kasuan dioenez, “oztopo argiak ikus daitezke press clipping ekinbiderako eta zerbitzu hauen erabiltzaileentzat, eskubide hauen kudeaketa egiteko sistema on bat asmatzen ez bada”. Bukatzeko, Auzitegi honen hitzok geure egin behar ditugu: “Konponbide negoziatu, zabal eta egonkorra behar da”.